



## ERANSKINA

### UPV / EHUko ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEK

### EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

### 2019ko deialdia

Azken urteotan, administrazio eta zerbitzuetako langileei zuzendutako diru-laguntzen deialdiaren bidez, Euskararen eta Etengabe Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak sustatu egin du euskara ikastea.

Hori dela-eta, honako deialdi hau egiten da:

## OINARRIAK

### 1. DEIALDIAREN XEDEA:

Deialdi honen xedea **2018 – 2019 ikasturtean zehar, hau da, 2018ko urritik 2019ko irailera arte**, euskara ikasi dutenen UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langileei diru-laguntzak ematea da. Hurrengo baldintza bete ostean:

- Diru-laguntza emango zaie IVAPeko erakundeak euskara ikasteko ikastaroetatik kanpo geratu direnak, IVAPek emandako ordu-kreditua agortuta izateagatik.
- Ordu-kreditua izan arren, IVAPeko erakundeak egindako deialdietan ezin izan bazuten parte hartu, UPV/EHUko langilea ez izateagatik; eta horrela justifikatzen dutenekin salbuespen bat egingo da.
- Deialdi honetan, eskatzaile batek **ikastaro** bat baino gehiago **egin badu, diru-laguntza ikastaro garestienagatik emango zaio.**

### 2. ESKATZAILEAK:

Lanean diharduten UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langileek diru-laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte.

Hala ere, **diru-laguntza eskatu ahal izango du euskara ikastaro osoa iraun zuen bitartean, eskatzaileak demostratzen badu, UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langilea izan dela.**



### 3. **ESKARIAK:**

a) Eskaria egiteko, deialdi honi atxikitako inprimakia erabili behar da, eta UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulego batean aurkeztu behar da ([http://www.ehu.es/oficinas\\_registro.html](http://www.ehu.es/oficinas_registro.html)), edo, hala badagokio, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

b) **2019. urtean epe bakarra** irekiko da eskariak egiteko: **2019ko urriaren 3tik 18ra.**

**Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaririk.**

c) Eskariarekin batera **dokumentazio hau aurkeztu behar da:**

- **Probetxu agiria:** ikastaroaren ezaugarri hauek guztiak zehaztuko dira probetxu agirian:

- **ikastaroaren hasiera-bukaerako datak,**
- **hasiera maila,**
- **gainditutako maila,**
- **prezioa;**
- **ordu kopurua;**
- **asistentzia (emandako eta hartutako orduak);**
- **ordutegia. (Multimedia edo autoikaskuntza ikastaroak izan ezik)**

- Enpresak egindako **jatorrizko faktura ordainduta dagoela adieraziz** edo **ordainagiri originala** aurkeztu beharko da. **Kutxazain automatikoan egindako ordainketek euskaltegiaren zigilua izan behar dute** (konprobatzeko kutxazainek emandako ordainagiriaren kontu korrontea euskaltegikoa dela).

- **Multimedia edo autoikaskuntza ikastaroen kasuan sinatutako kontratuaren kopia bat gehitu behar da.**

d) Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskarien zerrenda argitaratuko da Euskararen eta Etengabe Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan nahiz webgunean. Zerrenda horretan adieraziko da, halaber, eskariak zuzenketaren bat behar duten edo dokumentazioa falta zaien, halakorik egonez gero.



Eskaria edo aurkezturiko dokumentazioa osatu gabe badago edo bestelako edozein akats badu, **10 laneguneko epea** emango da akatsa zuzentzeko edota beharrezko agiriak aurkezteko; bestela eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, ebazpena eman ondoren. Horren berri, emango zaie interesdunei Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan, baita webgunean ere.

#### **4. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:**

**Diru-laguntza matrikularen %75a izango da honako mugekin:**

**a) Multimedia edo autoikaskuntza ikastaroen kasuan: ordaindu izanaren %75a, beti ere, 900,00 € gehienez.**

**Iraupen luzeko kontratuen kasuan, zeinetan aurreko deialdietan jaso ziren Euskararen arloko errektoreordetzako diru-laguntzak, kontratu horiengatik jasoko den diru-laguntzak guztira ezin izango ditu 900€ gainditu.**

**b) Ikastaro arruntak: 1,90 €/ordua**

**c) Barnetegia: 400,00 € / hamabostaldia.**

**Eskarien kopuruak hala behartuko balu, diru laguntzen zenbatekoa murriztuko litzateke dagoen aurrekontura egokituz. Edonola ere kide batek orotara ezin izango ditu 1.100,00 € baino gehiago kobratu. Ez da diru-laguntzarik emango maila bera errepikatzeko aurreko urtetako mota berdinetako kurtsoa bada.**

**Ordea, beste mota bateko kurtsoa egiten badu, maila finkatzeko, nahiz eta maila errepikatuta izan, diru-laguntza emango da.**

#### **5. ERABAKIA ETA ORDAINKETA.**

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak erabakia emango du onartutako eta ezetsitako diru laguntzen zerrendekin, eta atzera egindako eskaerekin. Horren berri, emango zaie interesdunei Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan, baita webgunean ere.

**Behin betiko erabakiak amaitzen du bide administratiboa, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearen aurrean, erabakia**



**argitaratzen denetik hilabeteko epean; administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.**

Onartutako diru laguntzaren zenbatekoa erabaki ondoren, **ordainketa bakarrean** egingo da diru laguntzen diru-sartzea.

#### **6. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

- a) **Gutxienez, %80ko asistentzia eskatuko da.** Multimedia ikastaroetan kontratuan jarritakoa hartuko da kontuan.
- b) Deialdi honetako diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste erakunde publiko edo pribatuk xede berberaz emandakoekin. Horretarako, eskatzaile bakoitzak eskarian bertan aitortzen du ez duela beste mota bateko diru laguntzarik jaso.

#### **7. INTERPRETAZIOA**

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak baimena dauka deialdi honetako arauak argitzeko, bai eta horiek ezartzeko beharrezko beste arau batzuk emateko ere.

#### **8. ERREKURTSOAK.**

Deialdiak administrazio-bidea amaitzen du, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearen aurrean, hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, berdin zenbatutako bi hilabeteko epean.

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetza